


# EUSKAL LITERATURAREN KATEBEGI BERRIEN BILA (V): BEGIRADA FEMINISTATIK

Iratxe Retolaza

**UEU-GOI institutua**

**Euskal literaturaren irakaskuntza: tokikotasuna,  
lurraldetasuna eta kolektibo azpiratuak  
2023ko uztailak 12**



# EUSKAL LITERATURAREN IRAKASKUNTZA

## BEGIRADA FEMINISTATIK: LAU GERUZA

LEHEN GERUZA. **Egiletza**  
Emakume idazleak ikusgai

BIGARREN GERUZA. **Testuingurua eta katebegiak**  
Historiografia ikuspegi feministatik

HIRUGARREN GERUZA. **Literatur testua**  
Irakurbide feministak eta genero-imajinarioak auzitan

LAUGARREN GERUZA. **Literatur kontzeptuak**  
Literatur teoria eta pentsamendua feminismotik aztergai

# LEHEN GERUZA. EGILETZA

## AITORTZA LITERARIOAK AUZITAN

- ❖ **XXI. mendearen hastapenak.** Emakume idazleen gorakada (**2019ko liburu-argitalpenen zerrendak**: idazle emakumeak, %26,1 / idazle gizonak % 73,9).
- ❖ **Idazlegai emakumeek sarbiderako zailtasunak.** Adibidez, 325 neska gazte idazlegai, % 68,56 (1986-2018, Urruzuno sariketan irabazle) [Tere Irastortza, 2019].
- ❖ **Kanona(k) eta prestigioaren inguruko diskurtsoak.** **ARDATZ NAGUSIAK**: helduen literatura, liburua, argitaletxe literario jakin batzuk, nobela.
- ❖ **Ikusgaitasunaren auzia:** ikusgaitasun mediatikoa vs aitortza literarioa. [Tere Irastortza *Euskal emakumezko idazleak: sortzaile eta eragile txostena*, 2019. Ikus: [www.tereirastortza.com](http://www.tereirastortza.com)]



# LEHEN GERUZA. EGILETZA

## 8oko HAMARKADA: ALDIZKARIEN ALDIA

### JAKIN ALDIZKARIA

Aurelia Arkotxa, Itxaro Borda, Tere Irastortza, Mariasun Landa,  
Gema Lasarte, Laura Mintegi...

#### MINTZALDIEN EGITARAUUA

##### Maiatzak 11, astelehena:

Gaia: **EMAKUME IDAZLEAK EUSKAL LITERATURAN.**  
Hizlaria: **NEREA AZURMENDI.**

##### Maiatzak 12, asteartea:

Gaia: **EMAKUMEZKOA GIZONEZKOEN LITERATURAN.**  
Hizlaria: **TERE IRASTORTZA**  
**AURELIA ARKOTXA**

##### Maiatzak 13, asteazkena:

Gaia: **GIZONEZKOA EMAKUMEZKOEN LITERATURAN.**  
Hizlaria: **GEMA LASARTE.**

##### Maiatzak 14, osteguna:

Gaia: **EMAKUME-LITERATURA ZER DA, ETA ZERTAN DA?**  
Hizlaria: **LAURA MINTEGI.**

##### Maiatzak 15, ostirala:

«MAHAINGURUA»: **EMAKUME-LITERATURAREN**  
**IRAKURKETAK.**

##### Partaideak eta Gaiak:

NEREA AZURMENDI: **PATRICIA HIGHSMITHen IPUINAK.**  
MAITE GONZALEZ: **MERCE RODOREDAREN IZKRIBU**  
**AHOSKATUAK.**  
MARIASUN LANDA: **VIRGINIA WOLFen «NORBERAREN**  
**GELA».**  
ERMIRE MADARIAGA: **MARIE CARDINALen «LES MOTS**  
**POUR LE DIRE».**

EUSKAL LITERATURAREN III. ASTEA

# EMAKUMEA *eta* LITERATURA

1987ko Maiatzaren 11tik 15era  
Arratsaldeko 7,30etan

SARRERA DOAN



ANTOLATZAILEA:

Kultur Eretoa  
Barrasate, 12 • Donostia

BABESLEA.

AURREZKI-KUTXA  
MUNIZIPALA



CAJA DE AHORROS  
MUNICIPAL



# LEHEN GERUZA. EGILETZA

## 90eko HAMARKADA: NOBELAREN LORALDIA, KANONAREN ERROTZEA

### { Emakume Idazleen Lantaldea


**E**makume idazleak Arizkunen elkartu ziren 1999. urtean, eta *Emakume Idazleen Lantaldea* sortu zuten. Partaide batek hau adierazi zuen bilkuraren ondoren: «Duela 20 urte ez zen posible bilera hau, eta egin dugun iritzi-trukaketa oso baikorra izan da niretzat» (*Euskaldunon Egunkaria*, 1999/03/02). Lehen topaketak bigarrena ekarri zuen: Markinan, 1999ko irailan. Bigarren topaketanjada *Emakume Idazleen Lantaldearen* jarduera zehaztu zen, eta besteak beste, ipuin-bilduma bat egitea adostu zuten: *Gutiziak* (*Txalaparta*, 2000). Bilduma horren bidez, emakume idazleen artean askotariko estiloak eta joera literarioak garatzen zirela ikusaraztea zen asmoa. Elkar ezagutzeko eta elkarlana sustatzeko ekimen garrantzitsua izan zen. Urte gutxiren ondoren, lantaldearen dinamika apaldu zen.





# LEHEN GERUZA. EGILETZA

## 90eko HAMARKADA: NOBELAREN LORALDIA, KANONAREN ERROTZEA



2002



2006



# LEHEN GERUZA. EGILETZA

## EMAKUMEEN IKUSGAITASUNA

### INDARGUNEAK

#### ❖ Ikerketa monografikoak:

- Amaia Alvarez, *Genero eta nazio identitateak Katalina Eleizegiren antzezlanetan* (EHU, 2011).
- Nekane Goikoetxea, *Tene Mujika emakumea. Pizkundetik ahanzturara. XXI. mendetik ateratako postargazkiak* (2022).

#### ❖ Bilduma lanak:

- Sorne Unzueta, *Idazlan guztiak* (Labayru, 1998).
- Mayi Pelot, *Olerki, ipuin eta bildumak* (Maiatz, 2019).

### AHULGUNEAK

- ❖ Literaturaren historia diziplina eta ikerketa-lerro gisa ahul.
- ❖ Nobedadearen kultura: merkatu ikuspegiaren indarra.

## LEHEN GERUZA. EGILETZA

❖ **Emakumeek (eta kolektibo azpiratuek) genero literario ez-kanonikoetan jardun dute:** ahozko kultura, antzerkigintza, haur literaturan, aldizkarigintzan / kazetaritzan, poesian... (721 idazle emakume euskal letretan [Tere Irastortza, 2019]).

**ADIBIDEA.** Ikuspegi erromantikoak ahozkoetasuna eta herri-kultura balioetsi zituen:

- **Lore Jokoak.** Hainbat emakumek parte hartu eta irabazi, Lapurdin: besteak beste, Maria Luixa Erdozio (1869 eta 1875), Marie Hargain (1888 eta 1895) eta Aña Etxegarai (1894).



## LEHEN GERUZA. EGILETZA

❖ Emakumeek (eta kolektibo azpiratuek) literatur joera ez-kanonikoetan jardun dute, eta joera berritzaileak garatu: haur poesia (Marijane Minaberry), txotxongiloak (Enkarni Genua), zientzia fikzioa (Mayi Pelot), azpigenero literarioen parodia (Itxaro Borda)...



# EUSKAL LITERATURAREN IRAKASKUNTZA

## BEGIRADA FEMINISTATIK: LAU GERUZA

LEHEN GERUZA. **Egiletza**  
Emakume idazleak ikusgai

BIGARREN GERUZA. **Testuingurua eta katebegiak**  
Historiografia ikuspegi feministatik

HIRUGARREN GERUZA. **Literatur testua**  
Irakurbide feministak eta genero-imajinarioak auzitan

LAUGARREN GERUZA. **Literatur kontzeptuak**  
Literatur teoria eta pentsamendua feminismotik aztergai

## BIGARREN GERUZA. TESTUINGURUA ETA KATEBEGIAK

### HISTORIOGRAFIA LITERARIO FEMENINOA

#### Indarguneak


- ❖ Idazle emakumeak ikusgai egitea helburu (autoritate literario femeninoak).
- ❖ Lehia logikaz beste, kolaborazio-logikak, ispilu-logikak (genealogia femeninoak).
- ❖ Intersubjektibitate femeninorako espazio bat eraiki (ahizpatasuna).



1979

#### Ahulguneak

- ❖ Generoaren izaera erlazionala ez du kontuan hartzen.
- ❖ Beste genero-posizio bat duten idazle edo autoritateekiko harremanak batzuetan ez dira kontuan hartzen.



1984



# BIGARREN GERUZA. TESTUINGURUA ETA KATEBEGIAK

## HISTORIOGRAFIA LITERARIO FEMINISTARANZKO URRATSAK

- ❖ Dinamika literario feministen historia eraiki:
- a) Emakumeen askapenerako edo ahalduntzerako dinamika kolektibo-kulturalak balioetsi: irakurle-sareak, dinamika kolektiboak... Adibidez, **Andereño Idazleen I. Batzarra egin zuten Zarautzen 1930. urtean, *Maiatz* aldizkaria.**
- a) Kultur eragiletza eta kultur komunitatearen eraikuntzarako urratsak balioetsi: ikastolen mugimendua eta hezkuntza-sareak, kazetaritza-lanak eta prentsa-sareak...



2007. urtean Sareinak egitasmoa abian jarri zuten literatura-kritikari eta literatura-irakasle batzuek (Amaia Alvarezek eta Gema Lasartek bultzatuta), Kritika Literario Feminista sustatzeko (blogetik omenezko ekitaldietara).

## BIGARREN GERUZA. TESTUINGURUA ETA KATEBEGIAK

### 6oko-7oeko BERPIZTE KULTURALA ANTZERKIA: GENEALOGIA FEMENINO-FEMINISTAK

❖ Bi joera nagusi:

- **Euskal Iztundea:** joera tradizionalista eta moralista. Maria Dolores Agirre zuzendari bigarren aldian (1953-1981). Emakume antzezle, zuzendari eta antzerki-idazleak. Adibidez, Mayi Elissagaray (1893-1983), *Gure herria*; Maria Dolores Agirre (1903-1997), *Egan*.
- **Jarrai:** antzerki abangoardista, eta emakume antzezleen lehen agertokia (adibidez, Arantxa Gurmendi).



## BIGARREN GERUZA. TESTUINGURUA ETA KATEBEGIAK

### BEGIRADA INTERSEKZIONALA HISTORIOGRAFIAN: ZAPALKUNTZEN GURUTZAKETA

**BIZENTA MOGEL (1782-1854)**

**IPUI ONAK (1804)**

- ❖ Familia-giroan alfabetizaturiko klase altuko emakumea (euskara, gaztelania eta frantsesa; kultura klasikoa).
- ❖ «**Irakurle euskaldunari**» hitzaurrea: “Badakit, entzunaz beste gabe, neska gazte baten izena dagoela itsatsirik liburutxo honen azalean, jardungo dutela zeinuka ez gutxik, diotela bere artean, beste norbaiten lumaz jantzi nahi duela bela-txikiak; hau da, beste baten zeregina egin nahi dudala nire; ez dagokiola neskatxa bati bururik haustea liburugintzan: asko duela gorua, nahiz jostorratza zuzen erabiltzea”.



#### ❖ **Alegiak:**

- a) Gai erlijiosoaz besteko tematika landu, nahiz eta ikuspegi didaktiko-moralari eutsi.
- b) Euskal literaturan genero berria jorratu.
- c) Genero literario kanonikoa izan zen ilustrazio-garaian, baita euskal literaturan ere (XIX. mendean).



## BIGARREN GERUZA. TESTUINGURUA ETA KATEBEGIAK

### BEGIRADA INTERSEKZIONALA HISTORIOGRAFIAN: ZAPALKUNTZEN GURUTZAKETA **IPUI ONAK (1804)**

“Umeago nintzenean berriz entzun ohi nituen, zoro-zororik, eta pozez erotuta, **atso ipuinak**. Sinesten nituen egia handi batzuek bezala, Peru eta Mariaren ipuin parragarri, eta sustrai gabeak: entzunak entzunda ere, aspertu ezin nintzen; eta, bakerik ematen ez nien atso gaixoei berriz eta berriz esateko halako ipuinak. Hau da haur guztien gaitza, edo zorotasuna. Orain bada, ondorik, eta ondorengo onik ez zekarten ipuin eroak hainbat atsegin ematen bazidaten, nire adinaren argiabarretan sartu baino lehenago, zenbat eztituko ez zen nire bihotza irakurri nituenean gerora ipuin onak? (...).

Aditu diot ondo dakien bati, ipuin hauek izango direla guztiz onak ahaztarazteko **nekazarien etxeetatik ipuin oker, eta zatarrak**, nola sagar ederrak, eta diru berdinean saltzen daudenean, baztertu eta saldu ezinda gelditzen diren sagar min eta motelak. Nork txori gerezi txatarrari begiratzen die dauzkanean esku batera gerezi anpoilak”.



# EUSKAL LITERATURAREN IRAKASKUNTZA

## BEGIRADA FEMINISTATIK: LAU GERUZA

LEHEN GERUZA. **Egiletza**  
Emakume idazleak ikusgai

BIGARREN GERUZA. **Testuingurua eta katebegiak**  
Historiografia ikuspegi feministatik

HIRUGARREN GERUZA. **Literatur testua**  
Irakurbide feministak eta genero-imajinarioak auzitan


LAUGARREN GERUZA. **Literatur kontzeptuak**  
Literatur teoria eta pentsamendua feminismotik aztergai

# HIRUGARREN GERUZA. LITERATUR TESTUA

## IRAKURBIDE FEMINISTAK:

### KLASIKOEN ETA OBRA KANONIKOEN IRAKURKETA KRITIKOAK

- ❖ Testu literario klasiko edota kanonikoetan irudikaturiko mundu-ikuskeraren irakurketa kritikoa begirada feministatik.
- ❖ Testu literario klasiko edo kanonikoaren irakurketen inguruko gogoeta kritikoa (adibidez, emakumea sinbolotzat interpretatzea).
- ❖ Tematika edo auzia lantzen duten testu literario garaikideekin alderaketa (adibidez, Uxue Apaolazaren “Belauniko” narrazioa).
- ❖ Estetika literarioaren inguruko gogoeta kritikoa: zer dakar biolentzia estetizatzeak?





# HIRUGARREN GERUZA. LITERATUR TESTUA

**IRAKURBIDE FEMINISTAK:**

**AUTORITATE KULTURALAK AUZITAN**


NOIZ-ZER-NORK

Hogeigarren mendekoegia da  
basoerdiak hartzeko gelditzea.  
Te rooibosa, olo esnea eta halakoak  
saltzen dituzte orain tabernetan.

Egunkariko denbora-pasak egin bitartean  
kafesnea gosaltzen duten  
gixonzahar kulturetak laster hilko dira.  
Euren lagun txapeldun tripontziekin batera.

Orduan, agian guk eskatuko ditugu  
basoerdiak tabernan  
eta edango dugu erdia baino gutxiago.

Oihana Arana, *Lazunak azkazaletan*, Susa, 2021.



# HIRUGARREN GERUZA. LITERATUR TESTUA

## IRAKURBIDE FEMINISTAK: GENEALOGIA FEMENINO-FEMINISTAK

ITSASO AURREAN AMA  
Oroitzen dut bainujantzian  
eskuak gerrian, olatuei so

urte guztirako balio dit niri honek  
eta nola ez nuen ezer ulertzen

bizkarrez eta oinak ur bitsetan

han hartzen zuen adorea  
itzultzen dit gaur irudiak.

Itziar Ugarte Irizar, *Gu gabe ere*, Susa, 2022.



# HIRUGARREN GERUZA. LITERATUR TESTUA

## IRAKURBIDE FEMINISTAK: GENERO-IMAJINARIOAK ETA GATAZKA SOZIALAK


### GOSARI MORTALA (I)

Neskak egunero prestatzen zion gosaria mutilari.  
Egunero, behin ere hutsik egin gabe, ttantta bat zianurorekin.

### GOSARI MORTALA (II)

Mutilak neskari ez zion sekula gosaririk prestatu.

Ana Urkiza, *Bekatuak*, Elkar, 2005.





# HIRUGARREN GERUZA. LITERATUR TESTUA

## IRAKURBIDE FEMINISTAK: BEGIRADA INTERSEKZIONALA

Etiketak hala dio:  
% 100 kotoia, garbitu bereizirik.  
Ez erabili lehorgailurik, ez lisatu.  
MADE IN BANGLADESH.

Eskuetan dauzkat palankana  
Chimbo xaboia, leungarria eta  
umeen arropa.

Mahukak jaso eta uretan sartu ditut eskuak.  
Bits zuriaren miraz eragin eta eragin  
Eskuak nasaitu eta estutu  
arropa marruskatzen eta marruskatzen.



Ukondoak konketan hondoratuta  
burbuilak sortu eta puskatuz  
saiatu naiz besoak ur gero eta ilunagotik  
ateratzen.  
Nolabaiteko hipnosi horretatik askatzen.  
Eta orduan egin didate gainez  
bular sudur begi zuloetatik  
tintaz zikinduriko errekek.  
Suge beltz pozoitsuak  
barrutik hausten ari den etxetik ihes  
kea, hautsa, porlana  
goitik behera amiltzen.  
Emakume baten bi esku ziren  
bestaldetik tiraka nituenak.

Leire Bilbao, *Etxeko urak*, Susa, 2020.

# EUSKAL LITERATURAREN IRAKASKUNTZA

## BEGIRADA FEMINISTATIK: LAU GERUZA

LEHEN GERUZA. **Egiletza**  
Emakume idazleak ikusgai

BIGARREN GERUZA. **Testuingurua eta katebegiak**  
Historiografia ikuspegi feministatik

HIRUGARREN GERUZA. **Literatur testua**  
Irakurbide feministak eta genero-imajinarioak auzitan

LAUGARREN GERUZA. **Literatur kontzeptuak**  
Literatur teoria eta pentsamendua feminismotik aztergai

# LAUGARREN GERUZA. **LITERATUR KONTZEPTUAK**

❖ **Genero literarioak definitzeko moduak. JOERA NAGUSIAK:** nobela (gertaerak/fikzioa), poesia (emozioak/bizipenak), saiakera (pentsamendua)...

“Arraroa nintzen besteentzat, poesia idazten nuelako. Eta hara non bat-batean, poesia politikoa idatzi nuen. Halako batean gizon bilakatu nintzen batzuentzat”.  
Oier Guillan, *Arra. Arraroa* (Artezblai, 2010).

❖ **Literatur kontzeptuen genero-imaginarioak:** generizaturiko mundu-ikuskerak eraikitzen dituzten kritikoki aztertzeko urratsak egitea.



# LAUGARREN GERUZA. **LITERATUR KONTZEPTUAK**

## *FLÂNEUR*, HIRI-IBILTARIA

- ❖ Modernitatearen ikurra: subjektu autonomoaren ordezkari.
- ❖ Hiri-ibiltari anonimoa.
- ❖ Ikusmena (*voyeur, behatzailea*) nagusi, eta neurri txikiagoan entzumena.
- ❖ Hiriarekiko distantzia batean kokatzen da, neutraltasun edo objektibotasunaren izenean.
- ❖ Hiria mapa gisa ulerturik, abentura edo esploratze gisa ulerturik: espazioaren ezagutza (apropiazioa, konkista) [hiriaren bazterrak objektibizatu: prostitutak, eskaleak, mozkorrak, langileak...].

ADIBIDEA. Charles Baudelaire, *Gaitzaren loreak*, Balea Zuria, 2020.

## BERRIRAKURKETA FEMINISTA

- ❖ *Flâneuse*: emakume izendaturiko gorputz batek hiri-ibiltari izateko eragozpenak (espazio publikoan ibiltzeko mugak, behaturiko gorputz bilakaturia...).
- ❖ *Ibiltaria*, subjektu behatzailea (maskulinizatua) > *hiria*, objektu behatua (feminizatua)
- ❖ Zentzumenen hierarkizazioa: Ikusmena eta entzumena arrazoiarekin eta hitzarekin loturik (maskulinizaturik), eta dastamena eta usaimena gorputzarekin loturik (feminizaturik) (Howes, 2011).

## HERDOILAREN TRISTEZIAREKIN BATERA (Bernardo Atxaga, 1978)

Herdoilaren tristeziarekin batera,  
ziutate honen soinekoa udazkenetan lanbroa da;  
eta bere sabaia laino baso bat,  
non bizi den ilargiaren badaezpadako agonia.  
Eta kalatxorien habi eskaleen sakelak,  
eta sukalde proletarioaren argi urdinskak  
murraila erraldoiaren begi gauero.  
Zubi zaharretatik  
ibaiari so berripaper saltzailea  
hitz ezezagunen hiztegi bati bezala;  
bus txofer batzu bozeolari hilaz mintzatzen,  
apatridak bailiran trenak  
memoria karrilen fatalitatean galduz;  
denboraren oihal xinglea arratsezkoa soilik;  
arrabita baldarren nostalgia kantoietan,  
eta harantzago mozkorrak,  
kalegarbitzailearen beilegi bizia,  
beste zubi bat, prostitutak.



## EURIA ETA MEDUSAK

Euriak hiria erasotzen du, fin eta ikusgabe.

Bustiz goaz kale bustiagoetan zehar,  
ur tantei haragizko hilobi duina  
eskeinita.

6. mailako liburuak zioen

ura garela ehuneko 6on edo 7oen;

ez gero %90en!

ezen medusak ginateke

eta azal garden-transperentea genuke...

eta gu gizaki opakoak gara.


Argi dago.

Gure gorputzaren ahaide urruna den  
euri-jasarantz irteten dugu hirira  
ahalik eta tanta gehien iragazteko  
gorputz barrena,  
ur ehunekoa handituko dugulakoan.

Ezen %90 ur bagina  
medusak ginateke  
eta ez genuke modurik  
isilpeko sekretu izkaturik gordetzeko.

Sonia Gonzalez, "Euria eta medusak", *Sagarroiak*,  
BBK/Euskaltzaindia, 2002.

20  
01



**Sagarroiak**  
Sonia Gonzalez "Sumendi"

FELIPE ARRESE BEITIA SARIA  
OLERKIA

EUSKALTZAINDIA  
BBK FUNDAZIOA



# LAUGARREN GERUZA. LITERATUR KONTZEPTUAK

## EXISTENTZIALISMOA

### HISTORIOGRAFIAKO DISKURTSOAK

“Bere lehen eleberriak, *Leturiaren egunkari ezkutua* (1957), markatu zuen filosofia existentzialistak eragindako ibilbide literarioaren hasiera (...). *Leturiaren egunkari ezkutuan* Leturiaren eta Mirenen arteko maitasun harremanaren historia kontatzen da, eta harreman hori, eleberrian agertzen diren harreman pertsonal guztiak bezalaxe, porrot egitera kondenatua dago hasiera-hasieratik. Historiaren amaiera ezin dramatikoagoa da: Miren gaitz batek jota hiltzen da eta Leturiak bere buruaz beste egiten du. Absolutura iristeko bidea zelakoan Maitasunean ipinitako itxaropena zapuztu egiten zaio protagonistari.

Honela laburtuta, ez genioke duen garrantzia emango eleberriaren gai nagusiari, hots, hautatu beharrak gizakiarengan sortzen duen larridura existentzialari”.

M.J. Olaziregi, *Euskal eleberriaren historia*, 2002, Labayru Ikastegia/Amorebieta Etxanoko Udala, 77-78.

# LAUGARREN GERUZA. **LITERATUR KONTZEPTUAK**

## EXISTENTZIALISMOA

### **LITERATUR TESTUAREN GENERO-IMAJINARIOA**

“Halaz ere, azken-kutsuren bat ez al du ezkontzak? Ordura arte, alde batetik, gorantz ez al doa gizona, handik aurrera beherantz eta ilunpe beltzaren aldera abiatzen dela? Txikitzen ez al da gizona ezkonduz? Ezkongaietan zerbait banintzen, ezkondu-eta.... (31-32. orrialdea).

Zerubiden ikusi dugu elkar. Ni iritsi orduko bazegoen han Miren. Eta atzo gauean hala erabakita, haren ondora joan eta hitzik esan gabe, zaplateko bat eman diot. Negarrari eman zaio gajoa, eta orduan konturatu naiz neure zakarrerria latzaz. Berandu zen (...) Eman daitekeen musurik xamurrena eman diot masailean, batere haragikeriarik gabea, neure amari emango niokeen bezalakoxea. (68. or.)

# LAUGARREN GERUZA. LITERATUR KONTZEPTUAK

## EXISTENTZIALISMOA

### MENDEBALDEKO LITERATURAREN IRAKURKETA-OIHARTZUNAK

“Handik hiru urtera argitaratu zuen lehen eleberria, *Tunela* (1948), kritikaren arreta berehala bereganatu zuena eta orain euskarara ekarri duguna. Eleberria Juan Pablo Castel izeneko margolari baten aitortza bat da. Zehazkiago, margolariak, amodio gaixoti baten eraginez, bizi duen barne prozesua azalduko zaigu, azkenean maitea hiltzera eramango duena. Protagonista tipo paranoiko bat da; nahi duen bezala aplikatzen die logika deduktiboa bere amodio-harremanetan azaltzen diren arazo eta egoerei. Margolaria kartzelan dagoela hasten da eleberria, hara eraman duen prozesua kontatuz, eta hilketa burutzearekin amaitu, guztiz nahastuta eta zalantzaz betea. Arrazoitze logikoak ez du balio existentzia ezagutzeko, horra zer adierazi nahi zaigun eleberri honetan. Hortxe dago gizaki modernoaren tragedia, ebazten ez dakien inkognitaz betetako labirinto baten barruan galduta baitabil. Ihesbide bakarra, komunikatzeko bide bakarra, harreman sexuala da, baina horrek ere, behin burutuz gero, hasierako bakardadean uzten du gizakia. Gizakiak ez du besteekin komunikatzeko ez maitasunik ez eskuzabaltasunik. Sinbolismo sartretar horixe da, beharbada, eleberri honen aberastasun handiena. Hala ere, *Tunela* eleberri honek ez du bat egiten negatibismo sartretarraren aldebakartasunarekin. Sabatok berak aitortua da *ezerezaren* aurrean berak *zerbaiten* hautua egiten duela, itxaropena hautatzen duela, alegia”.

Mikel Garmendia, “Hitzaurrea”, in Ernesto Sabato, *Tunela*, 2007, Alberdania/Elkar, 7-8.



# Eskerrik asko!

Iratxe Retolaza  
([i.retolaza@ueu.eus](mailto:i.retolaza@ueu.eus))

